

# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2022-03-04 / 725 ZENBAKIA / 18. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



## Andoainera itzuli nahi duen ukrainar gaztea

Dihanna Petrechenko gazteak Andoainen du bigarren familia. Kiev hiriburutik 25 kilometro eskasera dagoen Irpin hirian bizi da. Asmo zehatza du: Andoainera itzultzea / 12-13



**Kamikaz antzerki konpainiako Amancay Gaztañaga sortzaileari elkarrizketa** / 8-9



**Elkarretaratzea Urnietan eta manifestazioa Andoainen, martxoaren 8an** / 10-11

**Iragan hurbileko bizimodua berreskuratzeko gogoia antzematen da Andoainen eta Urnietan**

Herrikide ugari murgildu zen Inauterietan. Argazki-bilduma zabala / 2-7

**MARTXOAK 8**

## Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoak 4



Zineforuma  
Fabricando  
mujeres

Martxoak 8



Elkarretaratzea

Martxoak 9



Inaugurazioa  
Jabekuntza  
eskola

Martxoak 11



Antzerkia  
Hiru kortse

Martxoak 27



Antzerkia  
Mikra



Urnietako  
udala





## Kalea berreskuratu zenekoa



San Juan plaza, ospakizunen abiapuntua. AIURRI

**Plazaz plaza** Eguerdia partean, karroza musikatua izan zen San Juan plazan, eta dantza ikusgarriak egin zituzten egipziarrez mozorrotuta. Dantza saio gehiago eskaini zituzten herrian zehar. Eguraldia lagun izan zuten egun osoan.



Idiazabal kalea, tarteka bada ere, oinezkoentzat bilakatzen da. AIURRI

**Kalez kale** Arratsaldean ere izan zen zer gozatua. Idiazabal kalean barrena ibili ziren hara eta hona zenbait talde, alde zurretik prestatutako koreografiak jendaurrean erakusteko. Talde handian edo koadrilan, jende asko murgildu zen inauteri festan.



Poxta Zahar taldearen arratsaldeko kalejira. AIURRI

**Ospakizunak plazaz plaza, kalez kale** Herri bazkariaren ondoren, The Roristak taldea igo zen kamioi gainera. Hala, itzulia eman zion herriari, bertsiso ezagunak joz eta urnietarrak dantzan ipiniz.



Azken afaria, Buruntza mendira begira. AIURRI

# Inauteri-giroko Urnieta

Gogotik eutsi zaie aurten herriko inauteriei, eta horren erakusle izan zen iragan larunbata. Askotariko hitzorduak izan ziren herrian, eta txikietatik hasi eta adinekoetara bitarte, makina bat urnietar atera zen kalera mozorroa soinean



Xauxar taberna gogoan hartu zuten, taberna zabalik izan zen azken asteburuan. AIURRI





Gazteak ospakizunez gozaten ikustea pozgarria izan zen. Askorentzat lehen bazkaria izan zen. AIURRI



Adin ezberdinetako urnietarrak elkartu ziren herri bazkarian. AIURRI



Inauteri festako argazki gehiago ikusgai daude aiurri.eus webgunean. AIURRI



## Iraganeko ohituren berreskurapena



Umorea nagusi izan zen egun osoan. AIURRI

**Otordua kalean** Bat baino gehiago animatu zen etxeko bazkaria kalean sukaldatzera. Originaltasun osoz bazkaldu zuten zenbaitek lisatzeko oholtzaren gainean. Proposaturiko gaia margolanak izan arren, askotariko mozorroak ikusi ahal izan ziren.



Barazki-paella, larunbatean eskaini zuten bazkaria. AIURRI

**Paella-jatea** I love paella cateringarekin antolatu zuen herri-bazkaria Poxta Zahar gazte koadrilen elkarteak. Barazkidun arrozaz gain, euskal pastela eta sorbetea dastatzeko aukera izan zuten.



Aspaldiko partez herri bazkaria egin zen Egape ikastolan. AIURRI

**Bazkari herrikoa** Hitzordu arrakastatsua izan zen Poxta Zahar taldeak antolaturiko herri-bazkaria. Izan ere, sarrera guztiak agortu ziren egun gutxian: 160 pertsonak izan zuten aukera eguerdiko giro paregabeaz gozatzeko.





## Ospakizunak kalean



La Salle Berrozpe ikastetxeak dozenaka lagun elkartu zituen eguerdian. AIURRI

**Plazaz plaza** Desfilerik ez egitea erabaki zen Andoainen, eta kalejira bakarrak erraldoi eta buruhandiena eta txistulariena izan zen. Pandemia aurreko partaidetza lortu ez bazen ere, herrikide ugari mozorrotu eta inauteri festan murgildu zen.



Goikoplazan, Zumea plazan edota Juanita Alkain elkartu zen jendea. AIURRI

**Kalea festazaleentzat** Eguraldia ezinbesteko elementua izan zen inauteri festaren arrakastan. Eguraldi ona lagun izanda, ospakizunak kaleak egin ziren. Banaka, koadrillan edo talde handietan antolatuta, festazaleak ez ziren etxean geratu.



Poperoak taldea, familia giroan, karroza eta guzti irten zen kalera. AIURRI

# Musika eta mozorro festa

lazko etenaldiaren ondoren, inauteri festa berreskuratzeko ahaleginak ezinbesteko laguntzailea izan du: Eguraldia. Eguzkitsu eta epel igaro zen larunbata, eta hari esker kalez kale bizitako ospakizuna bikaina izan zen



Txaranga doinuen sortzaile itxura osoa izan arren, megafoniaz lagunduta kalejiran ibili ziren. Hutsik egiten ez duen taldea da. AIURRI



andoaINDARRA  
euskaraz





Zerura begira jarri eta eguzkia nagusi zen. Plazara gerturatu eta hantxe zeuden lehen udatiarrak. AIURRI



Argazki hauek eta askoz gehiago ikusgai daude Aiurri.eus webgunean. AIURRI



Batzuk ez dira mozorro bakarria janztearekin konformartzen. AIURRI



Koadrila ugari zebiltzan kalean, larunbatean. AIURRI

## Inauteriak ostegunetik igandera



Sarituak, epaimahaikideak eta Udal ordezkariak. AIURRI

**Maskara lehiaketa** Haizea Alustiza, Lur Gonzalez, Ane Ezenarro eta Idoia Rodriguez, Aiora Muñoz, Ninbe Labaca, Sergio Prea, Eki Alonso, Naroa Salillas eta Emi eta Haizea izan dira aurtengo maskara lehiaketako saridunak.



Aterpen gosaldu eta gero, kalejiran irten ziren. AIURRI

**Lebiton** Goiz iragarri zuten, eta hala eta guztiz ere zaletu ugari hurbildu zen kalejirara. Andoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsak giro ederra jarri zuen larunbat goizean. Talde handia bildu zuten, kalez kale Tolosako dultzaineroekin batera ibiltzeko.



Txistulariak Zumea plazara hurbildu zirenekoa. AIURRI

**Olagain** Andoaingo txistulariekin hasi ziren igandeko ospakizunak. Eguerdia baino lehen ekin zioten kalejirari. Larunbatekoa bezain jendetsua ez bada ere, igandeko festari eusteko ahalegina egin zuten Andoaian.






Gaztetxo taldea pirataz mozorrotuta irten zen. AIURRI



Ez zen izan goiz ona laborategian, bai aldiz laborategitik irteterakoan! AIURRI



Zelai ahizpak! AIURRI



Askoren harridura piztu zuen mozorroa. AIURRI



Kolare biziekin, ikusgarri zeuden. AIURRI



Familia ugari irten zen larunbatean. AIURRI



Ez dadila Rock and Rolla falta. AIURRI



Super Heroiak Andoainen ikus zitezkeen. AIURRI



Kamera aurrean bikain. AIURRI



Irunberriko DJ hirukotea. AIURRI





Gazte koadrila, Kale Nagusian. AIURRI

Aurtengo moztzorro originaletakoa izan zen. Argazki kamara erraldoia, vintage giroko erretratuak egiteko. AIURRI



Pandemia aurretik gertatzen zen bezala, iluntze aldera jendetza elkartu zen Goikoplazan. AIURRI

**Argazki-bilduma zabalagoa webgunean**

ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

**AIURRI**



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Inoiz galdetu al diozu zeure buruari, irakurle, noren esku dagoen zure imajinarioaren erai-kuntza? Zein pentsamendu saltzen dira fikzioaren izenean? Eta zelako eragina dute horiek egunerokoan? Bada, galdera horiei erantzuna topatu die Kamikaz Kolektiboak, "Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi" obraren bidez.

"Bridgerton" telesail arrakas-tasuak eragindako inpaktuak (eta zorabioak) bultzatu zituen oholta gainera igotzera Iraia Elias, Erika Olaizola eta Aman-cay Gaztañaga aktore eta "sor-tzaile kamikazeak". Fikzioaren eta errealtatean arteko joan-etorrian saltoka, egunerokoan gertatzen denaren ispilu izan nahi dute, umoretsu bezain kri-tiko: apaingarriak apaingarri, fikzioan ere zaharrak berri.

**"Bridgerton" telesaila abiapuntu izan arren, horren gainera bertso librea egin al duzue?**

Horrelako tankerako telesailak oso ondo menderatzen dituzte ikus-entzuleen ahulguneak; fi-nean, kodifikatuta gaude txiki-tatik. Hala, ondo baino hobeto dakite nora jo behar duten eta zer eman behar diguten jaten, guk hori guztia irensteko eta onartzeko. Hori da arriskutsue-na: errealtatean, egunerokoan, ez baldin bazaude oso adi, fik-zioan saltzen diren zenbait hel-mugaren bila zoaz, inertzia. Nondik eraikitzen dugu geure iruditeria? Gizonen esku dago munduan egiten den fikzioaren %92.

Eta, bai, oso librea da gure bertsoia. "Bridgerton" telesai-letik abiatu arren, ideia-apur-keta mordo batekin dago erai-kita obra. Lehen eszenan, XIX. mende hasierako hiru emakume daude meriendan, baina apurtu egiten dugu horrekin. Gainera, beste makina bat telesail txer-tatu ditugu, "Outlander", adibi-dez.

**Garratetik asko al du zuen kome-diak?**

Komediatik asko dauka gure obrak; zenbait unetan, gainera, guri ere kosta egiten zaigu bar-reari eustea. Baina, era berean, garratza da, bai, jorratzen ditu-gun gaiak ez direlako samurrak.

**Hiru kortsekin, azukre askorekin eta brandy gehiegirekin hasten da istorioa. Zerekin egingo dute topo meriendara, mahaiaren bueltara hurbiltzen diren ikusleek?**

# "Arrakalak ikusten dizkiogu fikzioari"

AMANCAY GAZTAÑAGA SAGARZAZU AKTOREA

Saroben izango da Kamikaz Kolektiboa martxoaren 11n, arratsaldeko 19:00tan, egin duen azken lana plazaratzeko: "Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi"



Amancay Gaztañaga kantaria, aktorea eta dantzaria da. AIURRI

Fikzioak errealtatea uneoro nola zeharkatzen duen kontatzen du antzezlanak. Bestalde, maitasun erromantikoa dugu hiz-pide, eta, horren harira, gure harremantzeko moduez zein toki ez osasuntsuetan eraiki dugun maitasunaren gainera imajina-rioaz mintzo gara, besteak bes-te. Horrez gainera, gizezkoak ere agertzen dira, badaukate beren espazioa kontaketan: nola eraikitzen da beren izaera, iza-tea?

**Fikzioaren eta errealtatearen el-karreraginarri buruzko hausnarke-ta egiten duzue. Bi espazio horietan atzera-aurrera aritzen al zarete hori irudikatuzko?**

Hori da. Jolastu egiten dugu jauzi horiekin, eta oholta bera ere horrelaxe irudikatu dugu: lauki bat dago lurrian; horren barruan, fikzioa gorpuzten dugu; aldiz, hortik kanpo, errealtatean kokatzen gara. Bi eremu horie-tan gabiltza eta lehenak biga-rrenean duen eraginaz hausnar-tzen dugu. Izan ere, nahi edo ez nahi, bertatik sortu dugu gure iruditeria. Gaur egun, gainera, geroz eta gehiago zein azkarra-go kontsumitzen dugu fikzioa, edozein modutan nahiz era oso bortizean. Eduki-zurrumbilo hor-ren erdian, kritikotasun falta

**"IDEIA-APURKETA MORDO BATEKIN ERAIKI DUGU ANTZEZLANA"**

dugu maiz ikus-entzule gisa, eta ez gara gai ohartzeko zein eta zer dagoen kontaketa ororen atzean. Sistema kapitalistak erabiltzen dituen baliabideak dira Netflix bezalako euskarriak, bere azpiegitura osoa bermatu ahal izateko. Hala nola, teleno-bela-kodeak oraindik ere botere handia dauka, eta oso modu errazean irensten da amua. Pentsamendu kritikoa ere lainotu egiten dute; finean, asko du gas-lighting-etik: itsutu egingo zai-tut pozoina sartzeko.

**Hiru kortseez eta zenbait maniki bizardunez gain, bidelagun onak izan al dira antzezlanean umorea, ironia, satira...?**

Geure buruaz egiten dugu lehe-nik eta behin barre obran; eten-gabe topatzen gara barruan dugun heroinomanoarekin. Oso ironikoak gara Kamikaz Kolek-tiboko kideak, eta oso gustuko dugu erdidikula egitea. Iraul-tzailea da emakumeak umore mota jakin hori egiten egotea. Izan ere, hori bera ere esan egi-ten zaigu nola egin; ez digute histrionikak, oldarkorrek izaten uzten, eta guk, hain justu, ema-kume gisa baimentzen ez zaigun umoreari eusten diogu beti. Ez da guretzat ahalegina kode hor-retan igotzea oholtzara; gaine-ra, asko elikatzen dugu elkar.

**Zenbaitetan, publikoaren desero-sotasuna al dakar horrek?**

Jakina, baina, hein batean, tal-ka hori ere bilatzen dugu; hale-re, ez dugu inoiz inor samintze-ko asmoa.

**Izenik gabeko hiru kidek hartzen dute oholta: Emakume 1, Emaku-me 2 eta Emakume 3. Jende asko-ri oso ezagunak zaizkion errealtateak kontatzeko aukera ematen al dizue anonimotasun horrek?**

Fikzioaren barruan gaudenean, ez dakit jendea identifikatuta sentituko ote den; zenbait gizo-nezko bai, beharbada. Ispilu-lanean laguntzen gaitu anoni-motasunetik aritzeak. Gainera, bada obran aitortza une bat eta, agian, ikus-entzule asko zehar-katuko ditu momentu horrek.

Aktore garen aldetik, arraka-lak ikusten dizkiogu fikzioari; badakigu zertaz ari garen. As-kotan tokatu zaigu gizezko batek idatzi duen eta inondik inora ere identifikatuta sentitzen ez garen rol batean aritzea, as-kotan ikusten dugu zeinek mu-gitzen dituen hariak eta zerta-rako... Orduan, hortik ere idatzi dugu obra, eta, akaso, hori da





Iraia Elias, Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga aktoreak "Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi" antzezlanean. KAMIKAZ

zatorik bortitzena: aktore gisa, batere zure sentitzen ez duzun eta, are gehiago, batzuetan, dinamitatu nahiko zenukeen sistema baten parte zarela ikustea. **Ikus-entzuleek hausnartzea duzue helburu. Alabaina, zuei ere eman al dizue zer pentsatua?**

Noski baietz, baina jada aurretik baginen bide horretan: esaterako, maitasun erromantikoaz asko hausnartu dugu, edo baikoitzak betetzen ditugun edertasun kanonez. Lanketa handiak egin ditugu prozesuan, izan ere, horretarako aukera ematen digu Kamikaz Kolektiboak, esan nahi dugun horri ahotsa jartzen laguntzen digulako.

Emakumezko aktoreen ahotsa ez da inon entzuten, oso oso ezaguna izan ezean. Egun, oraindik ere, fikzioan, oro har, gizonzkoek zuzentzen gaituzte. Zorionez, oso entzuna sentiara-

zi nauen jendearekin lan egitea tokatu zait niri, baina ez da gehiengo.

**Nazioartean ezagunak diren telesail arrakastatsuak aipatu ditugu. Baina ba al dira etxean ere dinamika berdinak erreproduzitzen dituzten edukia?**

Ez gara oso urrutira joan behar, ez, horrelakoak ikusteko. Aurreko batean, Karmele Jaio idazleari entzun nion: "Zein gutxitan kontatzen dira benetan emakumeen istorioak emakumeen begiradetatik". Obra bat emakumezko batek idatzi badu ere, edukia transformatu egiten

**"EMAKUMEZKO AKTOREEN AHOTSA EZ DA INON ENTZUTEN, OSO EZAGUNA IZAN EZEAN"**

da gizonezkoak daudelako gainerako erabaki postuetan. Edo, bestalde, ez da batere ohikoa gure telebista publikoan emakumeak zuzentzen ikustea. Hala, oso begirada inportantea ari gara galtzen bidean, eta, ondorioz, gero, emakumeek sortutako gauzak ikusten ditugunean, ez dugu ondo ulertzen imajinario hori. Baina nola ulertuko ditugu, jan dugun guztia gizonezkoek eraikia izan bada? Gure iruditeria ikuspuntu horretatik sortu baldin bada, nola izango gara gai geure begirada propioa ulertzeko? Nik, adibidez, saiakerak saiakera, badakit ez dudala sekula topo egingo nire begiradarik puruenarekin, psu handia duelako urte luzez egonkortu diguten kodeak. Ez baldin bada hori aldatzen, dinamika berean jarraituko dugu. Zer dira pertsonaia femeninoak gizonezkoek

idatziak izan baldin badira? Nabaritu egiten da, eta hori ez da gure begirada, ez da gure atmosfera.

**Egoera honen aurrean, Kamikaz Kolektiboa daukazu arnasgune bezain bozgorailu.**

Eroso sentitzen garen kodean, istorioak sortzen eta dudak argitzen ahalegintzen garen espazioa da guretzat. Aske sentitzen gara sorkuntza-prozesuan eta gure kontatzeko moduari lekua egiten diogu bertan.

**Zeuek jarri dizkiezue hitzak obrari, eta zuzendaritza-lanetan ere hirurak aritu zarete. Laguntzarik jaso al duzue sorkuntza-prozesuan?**


Gu beti ahalegintzen gara emakumeekin lan egiten, beste kode bat sortzen delako. Besteak beste, Espe Lopez zuzendaria egon zen gurekin astebetzez gu zirikatzen buruan genituen idea guztiak, zenbait ariketaren bidez, zuzentzeko. Bestalde, Barbara Rasok egin zituen jantziak eta bete-betean egin zuen bat guk eman nahi genion begiradarekin.

**Diru pixka batekin eta maitasun handiarekin egindako proiektua dela entzun nizuen behin.**

Pentsa, lehen aurrekontua egi-tean, ez genuen geure burua kontuan hartu, alegia, oso diru gutxirekin aritu gara lanean. Alabaina, sekulako emaitza lortu dugu eta oso gustura gaude.

**Eta publikoa ere gustura sentitzen al duzue azken emaitzarekin?**

Askotariko profiletako jendea ikusten dugu ikus-entzuleen artean; oso heterogeneoa da publikoa. Kamikaz Kolektiboaren obrak jarraitzen dituzten emakume gazteekin egiten dugu topo, baina baita, den obra dela, astebururo bere herriko antzokira doazen herritarrekin ere.



## Hurrengo emanaldiak

- Martxoak 6: Aretxabaleta.
- Martxoak 7: Bilbo.
- Martxoak 11: Urnieta.
- Martxoak 13: Oiartzun.
- Apirilak 21: Aulesti.
- Maiatzak 18: Iruña.
- Ekainak 29: Zestoa.

Deigarria egin zaigu zenbat konektatu duten gurekin emakume helduek, izan ere, obra azkarra da, oso eroa.

**Seigarren antzezlana duzue honako hau. Maitasunik gelditu al zaizue soberan aurrera begira beste proiektu batzuk gauzatzeko?**

Idea ederrak ditugu, baina bultzada ekonomikoa falta zaigu, izan ere, ikus-entzunezko pilulak sortu nahi ditugu obra honekin. Dena dela, hara eta hona ibiliko gara oholta gainean datozen hilabeteetan, Urnietan, tartean. Herritarrei etortzeko gonbitea luzatu nahi diet, ederki pasako dute eta.



## Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK

w w w . a i u r r i . e u s

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa





# Jabekuntza eskolaren aurkezpena Urnietan

Martxoaren 8ko ekitaldien baitan, jabekuntza eskolaren aurkezpena egingo dute martxoaren 9an. Antolatzaileek adierazi bezala, "Jabekuntza eskolan parte hartu nahi duten emakumeak euren artean ezagutzeko espazioa izango da"



lazo elkarretaratzearen amaiera. Aurtengo hitzordua martxoaren 8an izango da San Juan plazan, 18:00tan hasita. AIURRI

## Erredakzioa URNIETA

Elkarretaratzea, jabekuntza eskolaren aurkezpena, kultur jarduerak... martxoaren 8ko ekitaldiak osagai ezberdinez osaturik egongo dira. Ekitaldi guztiak herritar guztientzat zabalik daude, martxoaren 9ko ekitaldia salbu.

Hitzorduetara hurbiltzeko sarrera eskuratu beharko da. Sarobeko bulego-ordutegian eskuragarri daude (09:00-14:00/16:00-18:00) edo leihatilan, egun berean

ikuskizuna baino ordu erdi lehenago ere eskuratu ahal izango dira. Internet bidez aurretik eskuratu nahi duenarentzat [www.bibe.me](http://www.bibe.me) webgunean sartuta egin beharko du.

## Hitzordu ezberdinak

"Fabricando mujeres" Paula Iglesias eta Ana Serna zinemagileek egin zuten, 2018an. Aktore lanetan Itziar Aizpuru eta Zalao Perez aurki daitezke. Hura izango da lehen hitzordua.

Martxoaren 8an elkarretaratzea deitu dute San Juan plazan. Arratsaldeko 18:00tan hasiko da, eta aurreko urteetan bezalaxe, dozenaka lagun elkartzea espero da.

Martxoaren 11n "Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi" antzezlan ikusteko aukera izango da Saroben. Astekari honetan Kamikaz konpainiako Gaztañaga kideari egindako elkarriketa aurki daiteke, 8-9 orrialdeetan. Gainerako ekitaldiak, jarraian.

## Ekitaldi-sorta Urnietan



Estereotipoei buruzko ikus-entzunezkoa. FABRICANDO MUJERES

**Ikus-entzunezkoa** "Fabricando mujeres". Honela dio sinopsiak: Maitek bere lantegian espazio subertsibo bat sortu du emakume-ereduaren estereotipoei aurre egin ahal izateko".  
**Martxoak 4, ostirala. 18:00, Sarobe. Gaztelania.**



Autodefentsa ikastaroa ohikoa izan ohi da jabekuntza eskolatan. GOIENA

**Aurkezpena** Urnietako emakumeontzako\* udaberriko jabekuntza eskola. 2022ko udaberriko programazioan garatuko diren ekintza proposamenak aurkeztuko dituzte.

**Martxoak 9, asteazkena. 17:30, Lekaio. Elebietan.**



Irati Gonzalez Jaimerena eta Koldo Arakistain Irazusta. AIURRI

**Zirko emanaldia** Botere harremanak ikusarazteko, zirku disziplina akrobatikoak lengoia gisan baliatzen dituen antzerki pieza da Mikra.

**Martxoak 27, igandea. 17:30, Sarobe. Euskaraz.**



**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

[www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus)

### Aiurri eskuragarri:

Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

### Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. [andoain@aiurri.eus](mailto:andoain@aiurri.eus) [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) @aiurri

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

**Maketatzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbiñe Ugartemendia. [idaizkaritza@aiurri.eus](mailto:idaizkaritza@aiurri.eus)

**Publizitatea:** Fer Irazu. [publizitatea@aiurri.eus](mailto:publizitatea@aiurri.eus)

**Banatzailak:** Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).

**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea.

**Zorion agurrak, merkatu txikiak:** [diseinua@aiurri.eus](mailto:diseinua@aiurri.eus) | [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus).  
Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZURTAGIRIA:



BABESLEAK:

**Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



# Ekitaldiz beteriko zikloa hastear da Andoainen

Transfeminismoari buruzko hitzaldia, Afrika Bibang eta Dudik P taldeen emanaldiak, Plaza morearen aurkezpen ekitaldia... martxoa ekitaldiz beterik dator. Feminismoa lehen lerroan jartzeko garaia da



2019ko manifestazioa azken urteetako jendetsuena izan zen. AIURRI

## Erredakzioa ANDOAIN

Josebe Iturrioren hitzaldiarekin abiatuko da aurtengo egitaraua. Transfeminismoa hizpide izango du, azken sasoi honetan eztabaida handia eragin duen gaia izan delarik. Martxoaren 3an izango da, eta biharamunean bi hitzordu iragarrita daude. Lehen, "Lumineszenteak" erakusketaren irekiera eta, bigarrena, Afrika Bibang kantariaren emanaldia. Ginear jatorriko algar-tarra da, eta ibilbide oparoa

osatzen ari da bakarleri gisa. Iraganen, Etsaiak eta Fermin Muguruzarekin batera aritu izan da.

"Martxoak 8, 8 emakume" urteroko kalejira ordezkatzera datorren hitzorduaren txanda iritsiko da larunbatean. Aurreko asteko plenoan Andoaingo Udalak bidea eman zion Bastero plaza berrizendatzeari, eta aurrerantzean "Plaza Morea" izena hartuko du. Goiz osoko ekitaldia iragarri dute.

## Manifestazioa

Feminismoaren aldarriak geroz eta ozenago entzuten diren birtartean, bada gaintzen ez den arazo larri bat: sexu erasoena. Inauteriak igaro berritan, Tolosan edota Barakaldon sexu erasoen berri eman dute. Feninismoaren aldeko eta erasoen aurkako grinak bultzatuta, aurtengoan ere manifestazio jendetsua espero da. Martxoaren 8an, asteartearekin, 18:30etan abiatuko da Goikoplazatik.

## Andoaingo lehen hitzorduak



Afrika Bibang kantari euskalduna. CARLOS GARCÍA AZPIAZU

**Kontzertua** "Ispiluaren aurrean" disko berriena aurkeztera hurbilduko da Andoainera. Oraingoan soul eta rithm and blues doinuak uzartutz.

**Martxoak 4, ostirala. 20:30, Bastero.**



Bastero plaza. AIURRI

**Aurkezpena** Plaza Morea izena hartuko du aurrerantzean Bastero plazak. Goiz osoan zehar ekitaldi-sorta iragarri du Udalak, "Plaza gurea da" izenburupean.

**Martxoak 5, larunbata. 11:00-13:00, Bastero plaza.**



**izendapen festa**  
**MARTXOAK 5**  
**LARUNBATA**

**PLAZA MOREA**  
*Andreurdinarena*

**11:00** Harrera

**11:15** Mural parte-hartzailea

**12:00** Dantza ekitaldia

**12:30** Ekitaldia  
Haur txokoa izango da



ANDOAINGO UDALA





Javier, Dihanna, Asun, Lana eta Alex, familia giroan. Argazkia atera zutenean gerraren arrastorik ez zuten. AIURRI

# "Gure alaba gerra pairatzen ari da Ukrainan"

**JAVIER ESTEVEZ ETA ASUN GARCIA** ANDOAINARRAK

Dihanna Petrechenko sei urterekin harreran hartu eta Andoainera ekarri zuten. Geroztik gaztea urtero itzultzen zen Andoainera. Egoera zaila bizi du orain, Ukrainan

**Mikel Arberas** ANDOAIN

Asun Garciak Chernobil elkar-teko kide batekin lan egiten zuen, eta haren bitartez ekimenari buruz gehiago jakin zuten. Haien asmoarekin bat egin zuten eta Dihanna, lehen aldiz, sei urterekin ekarri zuten Euskal Herrira, Andoainera.

Geroztik, urtero etortzen da eta Estevez-Garcia familiak komunikazioari eutsi dio geroztik. 18 urte bete zituenean, Dihanna Petrechenkok bere kabuz etortzeari ekin zion. Gerra piztu da Ukrainan, eta beren alaba egoera zailan da. Telefonoz eusten diote harremanari.

Familia oso kezkatuta bizi da Errusiak Ukraina hartu duenetik, eta elkarrizketan zehar behin baino gehiagotan malkoei ezin eutsirik daude. **Dihanna Petrechencorekin zenbatero hitz egiten duzue? Sarritan komunikatzeko aukera izaten ari al zarete?**

Gerra hasi zenetik bai, ahal dugun guztietan. Betidanik eduki dugu kontaktu estua eta denbora luzez hitz egin dugu, baina Errusiak Ukraina inbaditu zutenetik, ahal dugun guztietan kontaktatzen saiatzen gara, egunean lauzpabost aldiz, gutxienez.

**Nolakoa da kontaktua hori, gerra egoeran?**

WhatsApp bitartez jartzen gara kontaktuan, nahiz eta noizean behin bideo-deiak ere egin ditugun. Ezin du Internet-datu asko xahutu, ez baitakite noiz moztuko dieten Interneteta, sarea edota kontaktatzeko beste baliabideak. Oso adi egon behar gara, eta neurritz jokatu. Dihannaren ahizparekin ere kontaktuan gaude, hura Malagan baitago. Hala ere, ez dakigu zer egingo dugun kontaktua galduz gero, ezjakintasuna izugarria da eta beldurra are handiagoa. **Albistegietan Ukraina eta Errusiaren arteko gerra da nagusi; irudi gogorak, errefuxiatuak, heriotzak... Nola ari zarete kudeatzen emozio-egoera hau milaka kilometroetatik ikusita?**

Ezin dugu hitzekin azaldu. Alabak bideo eta argazki ugari bidaltzen dizkigu WhatsApp bidez: bere herriaren egoera, zibilen heriotzak, suntsiketak, tiroak, leherketak etabar. Ez da gauza bera telebistatik modu inpersonalean batean irudiak ikustea, edo alabaren bidez bizi duenaren zuzeneko kontakizuna jasotzea. Gerra egoera bat bizitzen ari da Dihanna eta bihotza uzkuratzen zaigu "aita, ama leherketak eta tiro hotsak entzuten ari naiz, geroz eta ugariagoak dira", esaten digunean. Beldurgarria da gertatzen ari den guztia.

**Dihanna nola ari da egoera hau guztia kudeatzen?**

Gaizki. Oso izututa dago. Lehen aldiz bombardatu zituztenean WhatsApp bidez deitu zigun, gaueko 02:00ak aldera: "Ama atera nazazu hemendik, mesedez. Lagundu irteten", eta segituan leherketen soinuak entzun genituen telefonoaren bestaldetik, "bombardatzen ari dira, atera nazazue hemendik!". Hori guztia burmuinean iltzatuta daukagu. Alabaina, ahal duenean deitzen digu eta komunikatzen gara. Gaur, esaterako, konortea galdu duela esan digu, egoerak sortutako antsietatea eta inpotentzia medio. Hala ere, Interneteko datuak ez xahutzeko gogorarazi diogu, badaezpada. Konexioa galduz gero...

**Hori gutxi balitz, Petrechenkok bi urteko seme bat du.**

Oso txikia da haurra, ez dago modurik gerra bat zer den azaltzeko. Ez daki ezer, nahiz eta, seguruenik, ez-ohiko egoera dela sumatzen duen. Egia da, Dihannak aipatutakoaren arabera, leherketak entzuten dituztenean lasterka beldurtuta ohe azpian ezkatutzen dela. Gainera, orain arte, 'babesleku' batera joaten ziren; baina joateari utzi zioten irtenbiderik eta ke-aterabiderik gabeko soto bat zelako, oso arriskutsua izan liteke bertan geratzea.

Jendeak uste du, lehergailuak Kieven eta gune militarizatueta soilik jaurtitzen ari direla, baina zibilen etxebizitzetara ere bota dituzte. Herriak suntsitzen eta herritarrak hiltzen ari dira errusiarrak.

**Gerrak herritar ugari kalera atera ditu azken egunetan, Donostian adibidez. Joan al zineten manifestaziora?**

Bai, bertan izan ginen. Euskal Herrian bizi diren ukrainarrak eta gu bezalako familiak bertan



elkartu ginen. Herritarrak ohar-tu behar dira gerra hau mundu osoari eragingo diola hemendik gutxira eta, hortaz, inplikazioa eta elkartasuna handiagoa izan behar duela. Jazotzen ari denari ikusgarritasuna eman behar zaio. **Ukrainak ba al du etorkizunik, ikusitakoa ikusita?**

Aurretiaz herrialdearen egoera kaskarra zen. Beste herrialdeekin alderatuta atzeratuago daude, eta Chernobylgo gertakaria kolpe latza izan zen. Izatez, herrialde oso aberatsa da mineralai eta lurrei dagokionez, baina jendartearen ez da hori hautematen. Egun, gerra honekin, etorkizuna ilun ikusten dugu.

Egunotan bizi duguna mundu mailan eragingo duen gertakari historikoa da. Herrialdeen arteko harremana guztiz aldatuko da, okerrera egingo du. Jada, hainbat gauzetan prezioek gorantz egin dute, soilik bost egunetan.

**Errusiaren aurkako hainbat neurri ezarri dituzte; besteak beste, hedabideak zentsuratzea, Errusia futbolaren mapatik ezabatzea edota ekonomikoki mugatzea...**

Ez zaigu justua iruditzen. Milaka errusiar Putinen politiken kontra daudela seguru gaude. Alabaina, ezer gutxi egin daiteke zibilak bonbardatzen dituen ero horren aurka. Gainera, Errusian egin diren manifestazioen irudiak ikusi ditugu, baina isilarazten saiatzen dira. Gutxi batzuen erabakiak, herriaren galera dakar.

**Dihannak Andoainera itzultzeko nahia azaldu dio Aiurriri. Gaiaz hitz egin duzue?**

Hona iristea lortuko balu, edonoren etxera etorriko litzateke, arazoa Ukrainatik ateratzean datza. Lagun eta familiako kide ugari prest agertu dira Dihanna eta semea etxean jasotzeko.

**Europar Batasunak adierazitakoaren arabera, ukrainar errefuxiatuek ez dute arazorik edukiko laguntza jaso eta European sartzeko. Zer diozue?**

Hitzetik ekintzetara tarte handia dago. Orain hitz polit ugari esaten dira, baina Polonian ukrai-

nar errefuxiatuekin arazoak sortzen ari dira. Beraz, ez dugu ilusio faltsurik egingo. Ez hori bakarrik, ez da batere erraza izango zure jatorria, etxebizitza, lagunak eta familia atzean uztean. Oso gaizki egonda ere, Ukrainan geratu nahi dutenak egongo dira.

Dihanna zorte handiko pertsona da, familia eta lagun ugari ditu hemen, baina beste milaka eta milaka ukrainarrek ez dute zorte bera. Beraz, euren zako oso egoera zaila izan behar du, bai emozionalki eta baita kudeatzeko ere.

**Orain guztiz inguratuta daude. Irpin hiritik irtetea posible al da?**

Bertatik ateratzen saiatzeko moduak bilatzen ari gara. Ez dute autorik, eta autoa edukita ere hiltzeko arriskuan egongo lirateke. Kontuan eduki bi urteko haur batekin doala, beldurra eta erantzukizuna askoz ere handiagoa da. Pentsa ezazu memento batez mugara iristen zarela, ez dakizu igarotzen utziko dizuten, non sartuko zaituzten ala zer pasako den. Oso gogorra da, baina ezin dira bertan geratu. Alde egin behar dute, bai ala bai.

Dihannak Ukrainatik atera behar du, baina baita beste herritar guztiek ere; ez dugu nahi herritarrak hiltzea, ez dugu nahi tankeek autoak zapaltzea, ez dugu nahi familiak banantzea. Zerbait egin beharra dago, Vladimir Putin Errusiako presidentek ez baitu erasoaldia geraraziko.

**Irungo familia batek 2.800 kilometro egin zituen familiako kideak erreskatatzeko...**

Etsipenak edozer egitera bultatzen zaitu. Gerra lehertu baino egun batzuk lehenago, hegaldiak begiratzen egon ginen bertara joan eta Dihanna eta bere familia bueltan ekartzeko, baina, bat-batean, gerran sartu ziren eta gure asmo osoa pikutara joan zen.

Inpotentzia izugarria da, gure alaba gerra egoera bat bizitzen ari da. Ziurgabetasun egoera da eta ezin dugu ezer egin.

**"BI URTEKO HAUR BATEKIN DOA, BELDURRA ETA ERANTZUKIZUNA HANDIAGO DA"**

**"INPOTENTZIA ETA ZIURGABETASUN EGOERA IZUGARRIA DA ETA EZIN DUGU EZER ERE EGIN"**



Dihanna Petrechenko eta Naroa Gomez, Andoainen. PETRECHENKO

## Dihanna Petrechenko, Andoainen errotutako ukrainarra

Dihanna Petrechenko sei urterekin etorri zen lehen aldiz Andoainera. Segituan egin zituen lagunak eta familiko kide berria bilakatu zen. Urtero itzultzen zen herrira, baita 18 urte bete ostean ere. Zorte handiko pertsona da, izan ere, egoera lazarri honetan asko dira gerratik irten eta etxeko berotasuna emateko prest agertu diren lagunak eta familiak. Horrez gain, hiriburuetan elkartasun ekimen ugari antolatu dira Ukrainaren alde.

Bien bitartean, Javier eta Asun alaba etxera ekartzeko irtenbideak bilatzen saiatzen ari dira, amaiera garbirik ez duen gatazka belikotik urruntzeko.



Irpin hirian bertan, Dihannaren herrian, gerran dira. Irudi gogorak bidali ditu Aiurriri. Irudian, soldaduak leherketa ostean. Lurrean dagoena hilik dago. PETRECHENKO BIDEZ

## Andoainera itzuli nahi du Petrechenkok

Andoainekin lotura estua duen ukrainarra da Dihanna Petrechenko; memento latza, gerra-egoera bizitzen ari baita bere herrian. Ukrainako Irpin hirian bizi da gerra-egoera betean, Kievetik oso gertu, familiarekin eta semearekin: "Egoera larria da, lehergailuen eta tiroen hotsak entzuten dira. Etxetik irtetzen uzten digute, baina ez da gomendagarria, oso arriskutsua baita".

Hiritik irtetzeko asmoa zutela jakinarazi zion Aiurriri, aurreko igandean. Baina zailtasunak besterik ez dituzte aurkitu: "Hiritik igandean irtengo ginela pentsatzen genuen, baina autoan ez ibiltzeko gomendatu digute. Poloniara joan nahi genuen ahal bezala eta, bertan, Andoainera joateko hegaldi bat hartzeko asmoa genuen".

Egoeraren aurrean ezer gutxi egin dezakete: "Ezin dugu ezer egin. Kalean hiltzeko edo zauritua izateko arrisku handia dago. Itxaron besterik ez dugu, baina zeri? Gau osoan bonba-leherketak entzun ditugu: etxe osoak egiten zuen dardara, eta tiro-hotsak ez dira eten". Ukrainatik alde egin nahi duten arren, egoeraren larritasuna azpimarratu du Petrechenkok: "Autoa hartu eta kanpora joan gintezke, modu batera edo bestera. Alabaina, oso arriskutsua da, kaleetan errusiar tankeak ikus daitezke eta gure bizia arriskuan egon liteke, ez baitakigu bonba bat jaurtiko diguten ala tirokatuko gaituzten".

Aiurriko hizketaldiak iraun bitartean, telefonoaren bestaldean, lehergailuen eztandak entzuten ziren.



## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTIRALA 4

**ANDOAIN Kanpaina**

Ukrainako herriaren aldeko kanpaina. Merkatalgune ezberdinetan egingo dute bilketa, nagusiki janari-dendetan. *Hainbat tokitan, ostirala bitarte.*

**URNIETA Ikus-entzunezkoa**

"Fabricando mujeres".  
18:00, *Sarobe.*

**ANDOAIN Kontzertua**

Afrika Bibang kantaria.  
20:30, *Bastero.*

**ANDOAIN Erakusketa**

"Luminineszenteak", Mariezkurrena kazetaria eta Pastor argazkilaria.  
18:30, *Bastero. Apirilak 1 bitarte.*

## LARUNBATA 5

**ANDOAIN Ekitaldia**

"Plaza gurea da":  
11:00 Herrera.  
11:15 Mural parte hartzailea.  
12:00 Dantza ekitaldia.  
12:30 Ekitaldia.  
11:00-13:00, *Bastero plaza.*

**ANDOAIN Kontzertua**

Dudik-P musika taldea.  
19:00, *Gaztetxea. 5 euro.*

## ASTEARTEA 8

**ANDOAIN Tailerra**

Pin lantegia eta liburu irakurketa.  
17:00, *Ludoteka.*



Kilimak taldea. KILIMAK

**URNIETA Korrika eguna Urnietan**

11:00-11:45 Paraxuta tailerra Plazido Muxika plazan.  
12:00-12:45 Egapexou eta Egape dantza taldea.  
13:00-14:00 Egape dantza taldea eta Kantazaun taldea.  
*Martxok 5, larunbata. Egun osoan zehar.*

**URNIETA Elkarretaratzea**

Martxoaren 8a dela-eta, herritar guztxi zabaldutako ekimena.  
18:00, *San Juan plaza.*

**ANDOAIN Manifestazioa**

Asanblada Feministak antolatuta.  
18:30, *Goikoplaza.*

## ASTEAZKENA 9

**URNIETA Aurkezpena**

Jabekuntza eskolaren irekiera".  
17:30, *Lekaio.*

## OSTIRALA 11

**ANDOAIN Ikastaroa**

Autodefentsa ikastaroa.  
18:00, *Gazte lokala.*

**ANDOAIN Ikuskizuna**

Flamenko ikuskizuna. Katxalinen alde, Zuenak antolatuta.  
20:00, *Bastero.*

**URNIETA Antzerkia**

"Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi".  
19:00, *Sarobe.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Coda**

Larunbata, 5. 19:30, 22:00.  
Igandea, 6. 19:30.  
Astlehena, 7. 19:30, 22:00.

**4 chicos y "esto"**

Larunbata, 5. 17:00.  
Igandea, 6. 17:00.  
**Big eyes**  
Martxoaren 8ko egitarauaren baitan antolatuta dute.  
Osteguna, 10. 18:30.



## SINOPSISIA

**CODA**

**Zuzendaria eta gidioa:** Sian Heder. **Aktoreak:** Emilia Jones, Daniel Durant, Eugenio Derbez... **Herrialdea:** AEB. **Generoa:** Drama, familia. **Iraupena:** 111 minutu. **Urtea:** 2021.

## Isiltasunaren hotsak

Ruby gorren familia bateko entzumena duen kide bakarra da. 17 urterekin, goizez gurasoeekin eta anaiarekin lan egiten du itsasoan. Ruby institutuko koruan probatzea erabakitzen du, eta irakasleak zerbait berezia ikusten dio. Musika eskolan sartzeko

aukeraz pentsatzera bultzatzen du, eta horrek erabaki bat hartzera behartuko luke. Aukeratu egin behar du: ikasketak edo familia. BAFTA eta Oscar sarietarako izendapen onenak eskuratu ditu, besteak beste, film onenarena.

**4 CHICOS Y "ESTO"**

**Zuzendaria:** Andy De Emmony. **Aktoreak:** Teddie-Rose Malleson-Allen, Pippa Haywood, Matthew Goode... **Herrialdea:** Britainia Handia. **Generoa:** Fantastikoa. **Iraupena:** 109 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Urtea:** 2020.

## Hondartzan topatutako laguna

Cornwall hirian oporretan egun batzuk igarotzen ari den haur talde batek ametsak egia bihurtzeko ahalmena duen izaki magiko bat ezagutuko du

hondartzan. Jacqueline Wilson idazlearen eleberrian oinarrituiko filma da. Hurrei begira eginda badago ere, familia osoarentzat aproposa.

**Outlet kalean Andoain**

**MARTXOAK 4**

Gora Kaletxiki txaranga 17:00-20:00

Andoaingo dendak beti zuekin

S2 SALKIN bertatik bertara

ANDOAINGO UDALA

Andoainko Udala





Burdina boluntarioak Ubaran bailaran, karobi bat berreskuratze-lanetan orain aurretik. BURDINA

## Burdina, ekimen betean

Burdina taldeak aurten egin beharreko egitasmoen zerrenda zehaztu duenean, ekimen gehienak Ubarango bailaran kokatuko dituela iragarri du. Antzinako geroz eta elementu gehiago topatzen ari dira inguru hartan

### Xabier Lasa ANDOAIN

Burdinako kideek azaldu dutenez, antzinako elementu gehiago biltzen ari dira Gordelekun, Andoaingo herritarren bizitza eta ogibideak azaltzen dituen erakustoki etnografikoan.

Hauxe 2022 urterako zehaztu duten lanen zerrenda:

- Ubaran bailara: Txingurri karobia (bigarren fasea, finkatze eta bermatze lanak); "La Fortalez" meatze-lubakia (berreskuratze eta bermatze lanak); Ubarango karobia (berreskuratze eta bermatze lanak).
- Asuko karobia: berreskuratze eta bermatze lanak.
- Ortzakako karobia: piztea.

- Bi bisitaldi gidatu: herriko ondareetan barrena.
- Aurreko urtetan berreskuratutako hamabi elementu: mantentze eta zaintza (garbiketa eta konponketa).
- Gordeleku: Andoaingo historia eta bizitzarekin zerikusia duten objektuen berreskuratzea eta mantentzea. Extremadura 7 kalean kokatzen da Gordeleku izeneko espazioa, eta bertan Burdina taldeko kideek urtetan bildu dituzten lan-tresneria eta pieza etnografikoak gordetzen ari dira, etorkizunean Andoaingo herriaren eta andoaindarren iraganeko bizi-moduaren erakusgarri izateko

asmoz. Gogoratu dutenez, herritarrek dohaintzan emandako objektuak ere jasotzen ari dira, eta alde horretatik, esker-rak eman nahi dizkie orain arte Gordelekura azaldu diren herritar horiei, eta aldi berean, deialdia luzatu dute etxean antzinako tresnak, aparatuak... dauzkatenek gauza berbera egin dezaten.

Andoaingo ondareekin lotutako ekimen horiez gain, Burdina elkarteak zehazteko dauka zeintzuk izango diren aurten Asteasu, Elduain eta Berastegi-ko udalerrietan egin beharreko egitasmoak.

### Hogei urteko ibilbidea

Burdina elkarteak 2002an jaio zen, ondare historikoa berreskuratze eta herritarrei zabalteko helburuz, eta hortaz, 20 urte bete ditu. Atzera begira jarrita, egindako ibilbidea da-tuetan eta gauzatutako egitasmoetan islatu nahi izan dute bere kideek. 120 boluntario hartu dute parte bere ekimene-tan, modu batera edo bestera; Andoaingoak ez ezik, baita Donostia, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria, Zizurkil, Amasa-Villabona edo Tolosakoak.

Egitasmoak hainbat udalerrietan gauzatu dituzte bi hamarkada horietan: Villabona, Zizurkil, Tolosa, Beizama, Elduain, Berastegi, Leitza, Areso eta Andoain. Horietan, sasiak janda eta ezkatututa edota desagertze zorian zeuden 38 ondare historiko (karobiak, garbitokiak, errotak, burdinolak, kobazuloak, meatze-lubakiak...) berreskuratu, txukundu eta argitara jarri dituzte; hain zuzen, Andoainen hamabost, Berastegin sei, Elduainen zortzi, Leitza hiru, Zizurkilen hiru, Tolosan bat, Beizaman bat eta Areson bat.

Ubaran bailaran dagoen Auzokalteko karobia da berreskuratutako azken ondarea. Hain zuzen, bailara horretara bideratu dituzte ahaleginak azken aldiak, eta hiruzpalau urtetako egitasmoari ekin diote, bertan identifikatu dituzten zenbait ondare (errota, zubia, borda, karobia, errota...) berreskuratze asmoz.

Burdinako kideek adierazi dutenez, irekia da elkarteak, eta ongietorria eskaintzen zaie boluntario gisa modu batera edo bestera lan egin nahi duten pertsoniei.

## ZORION AGURRAK



### ANDOAIN

**Alaia Fernandez**  
Martxoaren 8an, 10 urte beteko dituzu! Zorionak txikitina! Jarraitu zaren bezalakoa izaten! Izugarri maite zaitugu. Etxekoak.



### ANDOAIN

**Naroa**  
Naroak 7 urte beteko ditu otsailaren 19an. Zorionak gure etxeko txikiari! Asko maite zaitugu! Julen, ama eta aita!



### ANDOAIN

**Hegoa Mariezkurrena Zubillaga**  
2 urte bete ditu gure etxeko animalitxo txikiak: katua, behia, otsoa, beti zoragarri! Ikaragarri maite zaitugu! Amatxo, aitatxo, Iker, Haiz eta Izartxi.



### ANDOAIN

**Zorionak Ibai eta Julen**  
Ibai eta Julen Gurrutxagak martxoaren 8an eta 15ean egiten dituzte urtebetetzeak. 21+10 urte A ze bi guapo! Amz, amz...

## ODOL-EMAILEAK



**Martxoak 14, astelehena.**  
16:30-20:30. Anbulatorioa, Andoain.  
**Martxoak 15, asteartea.**  
16:30-20:30. Lekaio, Urnieta.

22. korrika

HITZ EKIN

Aiurri.eus webgunean  
KORRIKA 2022 atal berezia



Albisteak, deialdiak...  
Aiurri Korrikarekin bat eginik



# "Denda betetzen ari da"

**KOLDO ALKORTA ETA ANA RODRIGUEZ** IBAI MENDI ARROPA DENDAKO KIDEAK 25. urteurra ospatzen ari da; hori dela eta, beherapen interesgarriak egiten ari da, mota guztietako arropatan. Hernaniko Nafar kaleko 19an dute denda



Koldo Alkorta eta Ana Rodriguez Hernaniko Ibai Mendi dendan, astelehen eguerdian. AIURRI

**Mikel Arberas ANDOAIN**

**Zer nolako denda da Ibai Mendi?**

Gure denda mendiko materialean espezializatzen da, baina kaleko arropa eta outdoor motatakoak ere saltzen ditugu; gainera, moda-modako markak saltzen ditugu. Beraz, erosleak gauza ugari aurkituko ditu dendan.

**la guztiak marka ezagunak, ezta?**

Marka oneko arropak saltzen ditugu. Egia da garestiak direla, baina kalitate eta material oso onekoak dira.

**Azpimarratzekoa da ere, Ibai Mendi dendak 25 urte bete berri dituela...**

Egia esan, harrigarria da, jada, mende laurden pasa izana. Azkar esaten da. Denda ireki genuenean, arrantzarako tresneria eta mendiko materiala saltzen genuen. Egun, berriz, arrantzarako kanaberaren orde arropa moderno saltzen dugu. Denborak gauzak aldatzen ditu, izan ere, eskariaren arabera egokitu beharra dago merkataria, bestela akabo. Egun hauetan, goizez eta arratsaldez, denda betetzen ari da.

**Zein da gehien saltzen duzuen produktua?**

Mendiko arropa da gehien saltzen dena, baina azken urteetan outdoor arroparen salmenta ere igo egin da. Gainera, goiko solairua berritu egin genuen emakumezkoen arroparen salmentarako. Horrek ere, kaleko arroparen eskaria igo egin du.

**Pandemiak kirol-arroparen salmenta areagotu egin al du?**

Bitxia izan da. Koronabirusaren ondorioz, kirol arroparen eta materialaren salmenta handitu egin da; bestalde, arropa modernoaren eskaria jaitsi egin da. Pentsatzen dut, aisialdi gutxiago egotean, jendea mendira joateari ekin ziola, askatasun apur baten bila.

**Inguruko herrietako erosleak gerturatzeko al dira Ibai Mendira?**

Bai. Lortu genituen estadistiken arabera, erosleen %30 ez dira hernaniarrak; hau da, bezero ugari ditugu, Andoainen, Astigarragan, Goizuetan eta Urnietan, beste batzuen artean.

**Etorkizunari begira proiekturik ba al duzue?**

Egia esan, ez. Denda bakarria dugu, baina izugarriko lana ematen du. Beraz, nahikoa dugu denda kudeatzearekin.

**"PANDEMIA GARAITIK HONA HANDITU EGIN DA KIROLA EGITEKO MATERIALAREN SALMENTA"**

**"BEZERO UGARI DITUGU ANDOAIN, URNIETA ETA INGURUKO HERRIETAKOAK"**



**ASKATASUN  
EGUZKIA  
BAINO  
BEHARRAGO**

**JULENE AZPEITIA GOMEZ  
(1888-1980): BIOGRAFIA ETA OBRA**

**SALGAI: online,  
larramendibazkuna.eus**



**MARTXOAK 14,  
astelehena**

**18:30** Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan

**Julene Azpeitia:**  
emakume aitzindaria  
euskal literaturan.  
*Askatasun eguzkia  
baino beharrago* bere  
biografia eta obrari  
buruzko liburuaren  
aurkezpena

Antolatzailea:  
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna